



**EBAZPENA, 2020ko azaroaren 12ko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran gaztelaniaren ezagutza-proba baloratu behar duen epaimahaia izendatzen duena eta proba horren tokia, data eta ordua ezartzen dituena.**

---

2020ko otsailaren 18ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduak, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere, hautaketa-prozedurarako deia egin dituenak (EHAA, 2020ko otsailaren 27koa), 6.1.1. oinarrian xedatutakoaren arabera, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek proba baten bidez egiaztatu beharko dute gaztelaniaren ezagutza, hizkuntza hori behar bezala ulertzeko eta ahoz eta idatziz erabiltzeko gai direla egiaztatzeko.

Horregatik,

#### EBAZTEN DUT:

**Lehena.**- Izendatzea Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren 6.1.1 atalean aipatzen den gaztelaniaren ezagutza neurtzeko proba baloratu behar duen epaimahaia:

Epaimahai titularra:

Burua:

Tomás Vicente, María Pilar

Kideak:

Zubizarreta Alonso, Ana Carlota  
Echevarria Barrena, Miren Argia  
Ibáñez Ozkoidi, María Carmen  
Olano Astigarraga, Idurre

Ordezko epaimahai:

Burua:

Larruzea Román, Gonzalo Juan

Kideak:

Delgado Curiel, Sofía  
Ibarretxe López, Esmeralda  
Ruano Alcubilla, Begoña  
Antón San José, María Pilar



**Bigarrena.-** Gaztelaniaren ezagutza proba egingo da:

- Tokia: EOI Bilbao HEO (San Pedro enparantza, 5 – 48014 Bilbao)
- Egunak: 2020ko abenduaren 9a (ahozko eta idatzizko ulermena)  
eta 2020ko abenduaren 10a (ahozko eta idatzizko adierazpena)
- Ordua: bi egunetan 10:00etan.

**Hirugarrena.-** Interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen horren aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 12a.

Langileak Kideatzeko zuzendaria,

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO